



eusfit
mugiment

10 urrats nire ikastetxeak Eusfit Mugiment sisteman parte har dezan

1



Eusfit Mugiment ezagutu

Sasoi fisikoaren monitorizazio sistema da. Ikasleek 6 proba pasako dituzte urtero gorputz hezkuntzako irakasleak gidatuta. Bukaeran irakasle eta familiek ebaluazio txostenak jasoko dituzte. [Ikusi bideoa](#).

2



Izena eman

Berritzegune Nagusiak ikastetxeetara bidalitako mezu baten bidez irekiko da izen-ematea.

3



Informazio bileretan parte hartu

Ikasturtean zehar 3 bilera egingo dira. Lehena sistema aurkezteko eta hasierako zalantzak argitzeko. Bigarrena probei eta aplikazioari buruzko argibideak emateko. Azkena ebaluazio bilera izango da.

4



Materiala ikastetxean jasotzea

Probak garatzeko beharrezkoa den [materiala](#) ikastetxeetan jasoko da. Jarraitzeko konpromisoa badago, materiala ikastetxean geldituko da.

5



Sasoi fisikoak osasunarekin duen erlazioa ikasleekin landu

Ikasleei sistema aurkeztu, sasoi fisikoa eta osasunaren arteko lotura erakutsi, estigmatizazioa saihestu, antolatze ardurak banatu.

6



Gurasoen baimena jaso

Seme-alabak parte hartzeko [baimena](#) eskatzen zaie gurasoei.

7



Testak pasatzeko protokoloa ulertu

[Probak egiteko eta erregistratzeko jarraibideak](#) irakurri.

8



Probak egin

Urria eta azaroa bitartean [probak pasatu](#) ikasleei.

9



Emaitzak aplikazioan sartu

Ikasleei egindako proba guztien emaitzak [Eusfit Mugiment aplikazioan](#) sartu. Aplikazioan sartzeko irakasle bakoitzak [XLNET](#) erabiltzailea beharko du (erabiltzailea ez duenak CAUra dei dezake 945 016 440).

10



Emaitzak aztertu

Ebaluazio txostenak aztertu eta ikasleekin komentatu. Saioetako edukiak planifikatzeko erabilgarriak izan daitezke.

Gurekin harremanetan jartzeko:
mugiment@mugiment.eus